



IMAZ ZUBIAUR, Leire

Euskal Herriko Unibertsitatea
Sarriena z.g.
48940 Leioa

BIBLID [1137-1951 (2007), 16; 35-43]

Sarrera eguna: 2006.12.27
Onarpen eguna: 2007.01.19

Oinordetza itunak euskal Zuzenbide Zibilean

(Succession pacts in Basque civil law)

Espainiako Kode zibila, egun ulergarriak eta onargarriak ez diren arrazoiengatik debekatzen duten oinordetze ituna, Zuzenbide pirenaikoa osatzen duten Herrietako ordenamendu zibilek mendetan zehar eabili duten familiaren ondarearen zatiezintasuna bermatzeko. Hegoaldeko euskal kurraldeetan indarrean dago, gaur egun, oinordetza itunari buruzko araudia, baina, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko legegilearen agendan, bere araudia eguneratzeko erronka inoiz baino biziago agertzen da, gure Ertaroko Foruek eskaintzen zuten araudi koherentea euskal gizartak egun dauzkan beharrei egokitzeko lanak berebiziko garrantzia eskuratu baitu. Euskal agente juridiko guztien erronka da hau, guztiok batera lortu beharrekoa. Ez al diegu euskal herritarrei, gutxienez, hori zor?

Giltza-hitzak: Familiaren onderaren zatiezintasuna. Oinordeko bakarraren sistema. Euskal Zuzenbidea gaurkotzeko beharra.

El pacto sobre la herencia que el Código Civil español, por razones hoy en día incomprensibles e inaceptables, prohíbe ha sido utilizado durante siglos por los ordenamientos civiles de los Países que comparten el Derecho pirenaico para garantizar la indivisibilidad de la herencia. Hoy día el reglamento sobre la herencia está vigente en los territorios del sur de Euskal Herria, pero especialmente en la agenda del legislador de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en la cual el reto que supone su actualización se presenta más acuciante que nunca, puesto que el trabajo de adecuación del coherente reglamento que ofrecían nuestros Fueros Medievales a las necesidades de la sociedad vasca tiene hoy en día ha tomado una importancia extraordinaria. Este es un reto de todos los agentes jurídicos vascos, que todos juntos hemos de conseguir. ¿No debemos esto al menos a los ciudadanos vascos?

Palabras clave: Indivisibilidad de la herencia familiar. Sistema de heredero único. Necesidad de actualización del Derecho Vasco.

Z Le pacte sur l'héritage que le Code Civil espagnol interdit pour des raisons aujourd'hui incompréhensibles et inacceptables, a été utilisé durant des siècles par les ordonnances civiles des Pays qui partagent le Droit pyrénéen pour garantir l'indivisibilité de l'héritage. Actuellement le règlement sur l'héritage est en vigueur dans les territoires du sud d'Euskal Herria, mais spécialement dans l'agenda du législateur de la Communauté Autonome du Pays Basque, dans laquelle le défi que suppose son actualisation se présente plus pressante que jamais, car le travail d'adéquation du règlement cohérent qu'offraient nos Fueros Médiévaux aux nécessités de la société basque d'aujourd'hui a pris une importance extraordinaire. C'est un défi de tous les agents juridiques basques, que nous devons relever tous ensemble. Ne le devons-nous pas au moins aux citoyens basque?

Mots clés: Indivisibilité de l'héritage familial. Système d'héritier unique. Nécessité d'actualisation du Droit Basque.



1. Sarrera. 2. Aurrekari Historikoak. 3. Oinordetza itunak 1992ko Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilar buruzko legean: 3.1. Formulazioa. 3.2. Izaera juridikoa. 3.3. Perspektiba estatikoa. 3.4. Perspektiba dinamikoa. 3. 5. Itunaren eratorritako inefikazia. 3. 6. Itungileen elkarbitza. 3.7. Oinordetza itunaren etorkizunari begira

1. Sarrera

Hurrengo lerroetan plazaratzen diren ideiak, *Oinordetza itunak Euskal Zuzenbide zibilean* titulupean, gazteleraz argitaratu den liburuari dagozkion ondorioen euskaratze sintetiko bat da, aldizkari honen 8. zenbakian azaltzen zen *Oinordetza itunak Gipuzkoako Foru Zibilean* zeritzon artikularekin hasi genuen ibilbideari bukaera ematen dion idazkia, hain zuzen ere. Irakurleari trinkoegia suerta dakioken testu honek azaleratu ditzakeen zalantzak argitzeko, beraz, bide zuzenena idazkiak oinarri gisa duen liburura jotzea izango da. Has dadin, ba, Zuzenbide pirenaiakoaren magalean, oinordetza itunak bizi izan duen eboluzioa laburmetrai baten formatuan eskaintzen duen txangoa.

2. Aurrekari Historikoak

XIII. mendetik aurrera Euskal Herriko hegoaldean errege eta jauntxoek *hiribilduetako* biztanleei pribilegio sorta bat eskaintzearen erabili zituzten *foru frankoak* izan ziren, funtsean, *lur laua* ordurarte zuen ohiturazko Zuzenbide pribatua lege idatzi bilakatzerantz bultzatu zutenak. Landa luraren *berezko zuzenbidea* bizirik mantentzeko helburuak gidaturik onartu ziren, Bizkaian, 1452ko *Foru Zaharra*, 1505eko *Enkarterrietako Forua* eta *Durangokoa* [data ezezaguna], 1574. urtean hirurek bat egin zuten arte 1526an Batzar Nagusiek plazaratu zuten *Foru Berriaren* araudiarekin. 1373ko *Aiarako Forua* eta 1394ko *Nafarroako Foru Orokorra* ere fenomeno horren adibide dira. *Gipuzkoan*, ostera, ez zuten haien ohiturazko zuzenbidea idatziz jasotzeko pausurik eman, “tradizioak” praktika juridikoan bizirik iraun zuten arren.

Zuzenbide pirenaiakoa dei genezakenaren eremupean, Ertaroko Foru hauek landa lurreko biztanleen beharrian ekonomikoetara egiteko erantzun bateratu eta koherente bat eskaintzen zuten. Oinarrian, **familiaren ondarearen zatiezintasuna** aldarrikatzen zuten, nekazaritzako, abeltzaintzako edo artisau ustiapena baitzen lur laueko familia gehienek bizibide bakarra. Izatez, lur lauan, baserriak *produzkie* eta *kontsumo zelula* bat osatu izan du XX. mendeko azken hamar-

kadak heldu bitartean: ustiapenak ematen duena bilakatzen da baserrian bizi den familia “zabala” aurrera ateratzeko tresna nagusia, bakarra ez denean. Horrela, arbasoengandik jasotako ustiapenaren zatiezintasuna bertan bizi den familiaren aurrera-bizitza bermatuko duen elementua izango da, mendetan zehar. Kristautasunaren eraginez, gainera, gizona eta emakumearen arteko ezkontza izango da *familia eredu* hedatuena: bere itzalpean ezkontideen familien arteko itun eta aliantzak ugalduko dira, adostutako ezkontzak, alegia, sendi bakoitzaren ondarearen bana-keta orekatua gauzatzea bilatzen dutenak. Eszenatoki honetan, Foruen araudiek *jabetza*, *familia* eta *oinordetzaren* arteko lotura argia isladatzen dute.

Darioten osotasunari begira Bizkaiko Foruen edukina eredu gisa hartuko bagenu, benetan aipagarria da hauen araudietan ageri den **diseinuak** gordetzen duen koherentzia eta barne kohesioa, belaunaldiz-belaunaldi gauzatu behar den familiaren ondareari dagozkion trasmisio zatiezinari gagozkiola. Alde batetik, testuok *foru-komunikazioa* deritzon ezkontzaren eraentza ekonomikoa arautzen dute, ondare familiarra jasoko duen seme edo alabaren ezkontza izango baita aipatu trasmisioan zubi lana burutuko duena. Kontutan hartuz foru-komunikazioa kontsolidatzean [hau ezkontide bat hiltzean gertatzen da, banaketa ez baitzegoen garai hartan arautua] komunitate unibertsal bat sortzen dela ezkontide alarguna eta amankomuneko seme-alaben artean, alargunak ondare osoaren gaineko gozamen eta berau *mortis causa* trasmittitzeko ahalmena gordez, nabaria da Foruek ezkontza *tandem* egokitzen dutela familiaren ondarea zaindu eta belaunaldiz-belaunaldi beheranzko lerroetan barrena gidatzeko. Izan ere, *tronkalitatea* baita diseinu honen muina: onibarrak ezkontzari eta bertatik abiatzen den familia berriari kateatzen dituena, alegia. Tronkalitateak familiaren ondarea familiaz kanpokoen eskuetan erori ez dadin xedatzeko muga zurrinak ezartzen dizkio belaunaldi bakoitzean ondarearen jabe denari, kanporanzko dohaineko trasmisioak deusezkan adieraziz, eta kostubidezkoen aurrean tronkaleko senideei lehenago eskuratzeko eskubidea, saka-eskubidea deritzona, eskainiz. Foruek marraztutako diseinuaren erpin gorenean, halaber, kausatzaileak [familiaren ondarearen momentuko jabea] *mortis causa* xedatzeko duen askatasuna kokatzen da. Ondare familiarra beheranzko lerroetik hasita tronkaleko senideei [eta, kasuz kasu, senipartedunei ere] “osotasunean” loturik badago ere, kausatzaileak badu lerro bakoitzean oinordetza bakarra aukeratzeko askatasuna.

Izatez, azken elementu honek eskaintzen digu aurrekoekin gordetzen duen barne kohesioa miresteko aukera aparta. *Tronkalitateak* familiaren ondarea halabeharrez sendiaren zainetatik zuzentzen duen heinean, Foruek belaunaldi

bakoitzean ondarearen jabe denaren seme edo alabaren ezkontza hartzen dute ondarearen transmisioa burutzeko momentu egokitzat: bikotearen ezkontza dela eta bi familia “lotzen” direla esan liteke. Ezkontide batek bere familiaren eskutik nekazaritzako, abeltzaintzako edo artisau ustiapena jasotzen duen bitartean, hots, *baserria*, familiaren etxea, beste ezkontidearen sendiak, trukean, *dotea* eskaintzen du, ezkontza beraren atzetik ospatu den familiarteko hitzarmena agerian utziz. Une honetan salto egiten du “eszenatokira” gure protagonistak, *oinordetza ituna*, izan ere, berau baita *baserria* eta familiaren ustiapenaren belaunaldiz-belaunaldiko transmisioa ahalbidetuko duen mekanismo juridikoa. Bi ezkontideetatik batek jasoko du, esan bezala, bere arbasoena izandako etxea: oinordetza ituna sinatuko dute berak eta ordurarteko baserriaren jabeak [ezkontidearen aita edo ama, gehienetan], aipatu ituna ezkontideen sendiek adostutako ezkontza-hitzarmenaren *corpus* zabalagoan kokatuz. Nabarmena, da, beraz, Foru bizkaitarrek irudikatzen duten pieza guztien arteko *mosaiko* itxia, zirrikitu larregirik gabe, *tiobibo* baten tankeran, familiaren ondarearen belaunaldiz-belaunaldiko transmisio zatiezinen inguruan gira-biraka.

Oinordetza ituna, beraz, mendetan zehar familiaren ondarea belaunaldiz-belaunaldi transmititzeko erabili izan den tresna juridikoa da, baserriaren “gidaritzan” beharrezkoa den ordezen prozesua gauzatu duena, hain zuzen ere. Momentuko jabeak seme edo alaba bat aukeratzeko du, bere sexu edo adinari so eginez baino ardura berriari aurre egiteko egokitasunari erreparatuz, eta, gehienetan, bederen, hautagaiaren ezkontza aprobetxatuz, hura *oinordeko* izendatzen du, biok sinatzen duten itunaren muinean. Hautatuaren anai-arrebak, ordea, “baztertuak” izaten dira, desjaraunstuak izan gabe, oinordeko bakarraren sistemak, familiaren ondarearen zatiezintasunak berau generazio bakoitzean esku bakar batek gidatzea eskatu izan baitu ehunka urtetan.

Foruen araudietan, hala ere, itunak DOHAINZA forma hartzen du, hau da; ituna, kategoria juridiko modernoak izaki, dohaintzaren “gorputzaz” baliatzen da, Foruen garaian, hautagaiaren aldeko *mortis causa* izendapena bideratzeko. Dohaintza hauek kausatzailearen hil osterako eszenatokia diseinatzeko negoziok dira, beraz, ez dohaintza soilak, Foruek argi isladatzen duten bezala: “dohain-hartzaileari” “*heredero*” eta “*successor en vida*” deitzen diote [FZ 109. kapituluak, FB II. legea, XXIII. titulua], “dohaintza” erabiliz oinordekoari transmititzen zaionari “*hereçia*” esaten diote [FZ 115. kapitu-

lua, FB Igo legea, XXIII. titulua], “dohaintzak” efikazia galtzen du oinordekoa seme-alabarik gabe hilez gero [FZ 112. kapituluak, FB XVII. legea, XX. titulua], eta, gainera, “dohaintzagileen” mantenuaz arduratzen da oinordekoa hauek hil arteraino, familiaren ondarearen jabetza formala, behintzat, berak baitu [FZ 91, 112 eta 136. kapituluak, FB III. legea, XXIII. titulua]. “Dohaintza” hauek, funtsean, *mortis causa izaera* dutela argi isladatzen den bezala, Foruek beraien **kontratu egitura** ere gorai patzen dute [FB II. legea, XXIII. titulua]. Ezkontza-hitzarmena da, Foruen eskerman, ituna gordetzeko erabiltzen den euskarri dokumentala [FZ 107, 108, 183. kapituluak; FB XII. legea, XX. titulua].

Testamentua ez bezala, oinordetza ituna ezin du sinatzaile bakar batek, bere kabuz, aldatu edo suntsitu. Bertan adosten den *mortis causa* izendapena ez da, beraz, libreki errebokagarria: kontratugileen borondateak lotzen dituen tresna juridikoa da, ituna, eta soilik Foruek adierazitako arrazoiak direla medio izan dezake kontratuak atzera buelta. Alde batetik, ituna suntsitua geratuko da oinordekoa hil egiten bada seme-alabarik gabe, izan ere, kontratuaren helburua belaunaldiz-belaunaldi familiaren ondarea zatiezina mantentzea bada, ondorengotza faltak bidea itxi egiten dio itunak martxan jarritako transmisio kateari [FZ 112. kapituluak, FB XVII. legea, XX. titulua]. Kasu honetan, beste oinordeko bat izendatzeko aukera zabaltzen dute Foruek, aurreko ituna suntsitu ondoren. Bestalde, Foruok kausatzaileari itunaren muina den oinordekoaren aldeko *mortis causa* izendapena errebokatzeko aukera eskaintzen diote hura “eskertzarrekoa” bada [FZ 115. kapituluak, FB XXI. legea, XXXIV. titulua], edo eta kausatzaileari eta bere ezkontideari mantenua ukatuz gero [FB VIII. legea, XVII. titulua].

Bizkaiko Foruek oinordetza itunaren inguruan [“dohaintza”, garaiko teknika juridikoan] eskaintzen zuten araudi aberatsak ez zuten, hala ere, jarraipenik ikusi indarrean jarri ez ziren Bizkaiko 1900 eta 1928ko Kode Zibilaren Eranskin Proiektuetan, 1959ko Araba eta Bizkaiko Konpilazioan ia ito egin zen arte. Gipuzkoak, bestalde, bere ohiturazko Zuzenbide pribatua praktikan gauzatzeko idatzizko testu baten babesik gabe jarraitu zuten, Nafarroaren berezko Zuzenbide zibilak garapen maila altuago bat esperimendatzen zuten bitartean, 1973ko Konpilazioarekin¹. Egoera honen aldaketa 1978ko Espainiako Konstituzioaren 149.1.8. artikulua ekarriko du, eta bertan arautzen den eskuduntza dela medio, 1992ko uztailaren 1ean Euskal Autonomi Erkidegoko Legebiltzarrak onar-

1. Euskal Herriko iparraldeko lurraldeek, aldiz, Frantzes Iraultzaz geroztik ez zuten, Zuzenbide pribatuari dagokionez, berezko inolako araudirik mantentzeko aukerarik izan, nahiz eta, ordurarte, hegoaldeko lurraldeek zituzten ohitura berak (edo antzekoak) kontserbatu, familiaren ondarearen zatiezintasunari eta oinordetza sistemari gagozkiola.

tu zuen *Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzko legeak* (EHFZZL), alegia. Egun indarrean dagoen arau honi, halaber, 1999ko azaroaren 16ko Lege autonomikoaren birtutez, Gipuzkoako Zuzenbide zibilari zegokion araudia erantsi zitzaion.

3. Oinordetza itunak 1992ko Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzko legean

3.1. Formulazioa

Indarrean dagoen araudi autonomiko hau legelari desberdinek burututako proiektu pribatuen batura izanik, eta kontutan hartuta bere tramitazioan Euskal Autonomi Erkidegoa osatzen duten lurraldeetako Batzordeek erakutsi zuten anbizio politiko eta sintonia falta, 1992ko Legeak, euskal auzotartasun zibil bateratuari uko eginez, oinordetza itunari gagozkiola *lau erregulazio ezberdin* aurreikusten dituela azpimarratu beharra dago: Bizkaiko lur lauari dagokiona (74-83 artikulua), Aiarako Foruan ezarritakoa (134 artikulua), Gipuzkoako Foru Zibilean araututakoa (179-188 artikulua), eta, forugabekoentzat, Kode zibilak inposatutako debekua (1.271. artikulua). Bizkaiko eta Gipuzkoako araudiak dira, hala ere, osoenak, eta hauek hartuko ditugu, soilik, aintzakotzat, hurrengo lerroetan zehar luzatuko dugun azterketari begira.

Bi formulazioetatik bizkaitarra da, duda izpirik gabe, desegokiena: "*Ezkontza-hitzarmenez, dohaintza edo Eskribau aurreko eskritura bitartez egindako itunez bana daitezke jarauntsiko ondasunak, guztiak edo batzuk...*" (74. artikulua). Alde batetik, atal honek oinordetza ituna berau egilesteko euskarri dokumentalekin nahastu egiten du (ikus, ere, 27. artikulua), izan ere, ezkontza-hitzarmena ez da, berez, kausatzailearen oinordetza diseinatzeko tresna juridiko aproposa, kontratugileek oinordetza itunaren bidez burutzen duten diseinua "gordetzeko" euskarri negoziial posible bat baizik. Kausatzailearen *post mortem* eszenatokia marrazteko tresna, testamentua eta legearekin batera, oinordetza ituna da; euskarriak, berriz, ezkontza-hitzarmena edo eta Eskribau aurreko eskritura soila. Dohaintza, ordea, Foruek ematen zioten esanahiari fideltasuna erakutsiz, oinordetza ituna kontsideratzen du 1992ko Legeak (76. artikulua), behin kategoria orokorra aipatuta, bere erreferentzia soberan dagoela nabarmena izanik. Eredu garbiagoa erakusten du, ordea, teknika juridikoari begira, Gipuzkoako araudiari dagokion 179. artikulua: "*Baserriaren eta hari lotutako ondasunen oinordetzaren ordenazioa eskritura publikoaz egindako oinordetzako itunaren bidez egin ahal izango da. Itungileek ezkontzako hi-*

tzarmeneko eskritura erabil dezakete helburu horretarako".

Nolanahi ere, legeak ez du oinordetza ituna definitzen. Ondoriozta daiteke, aipatu hutsunea betetzearen, hura *oinordetza ordenatzeko alde biko tresna dela, zeinaren birtutez itungileen borondateak haien artean eta adostutakoari lotuak geratzen diren, itundutakoa alde bakar batek, libreki, aldatu edo suntsitu ezinik*, alegia. Itunaren alde bikoitasuna (74, 77, 78, 82, 179, 180, 181, 182 eta 188. artikulua), halaber, itungileek hirugarren bat oinordeko izendatzen dutenean ere izango da azpimarragarria, nahiz eta izendatuaren aldeko deialdiaren izaera testamentu bidezko bokazioarena izan.

Lege autonomikoaren formulazio plastikoa dela medio, *itun positibo*a izan arren legegilearen erreferentzia, *itun negatibo*ak [ez-oinordetzekoak] eta *xedatzaile*ak [hirugarren baten herentziari buruzkoak] araudian tokia izan lezaketela aipatu beharra dago (4. artikulua), Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak sustatutako *Euskal Zuzenbide Zibilaren Legearen Anteproiektuaren* 100. artikulua adierazten duen bezala. Edozelan ere, itun positiboak oinordekoaren izendapen soila bilatu dezake, kausatzaileak bere ondarearen gaineko jabetza hilarteraino mantenduz (78 eta 182. artikulua), edo eta, izendapen harekin batera ondarearen eskualdaketa bat gauzatu, jabe berria, "formalki" bada ere, izendatua izanik (77 eta 181. artikulua). Oinordekoaren izendapena, hala ere, itungileek adostutako *erreserba, ordezen, errebertsio, karga* eta *betebeharrez* inguratua suertatu daiteke (74. artikulua), edozein kasutan ere, kontratugile bakar baten eskuetik, libreki, erreboka ezina izanik.

3.2. Izaera juridikoa

XIX. mendean pandektistika alemaniarrek zorrozturiko *negozio juridikoaren* suprakontzeptua da, kontratua eta testamentua zapai beraren azpian kokatzeko helburuari jarraiki, oinordetza itunaren moldaketa dogmatikoa burutzeko marko ezinhobea:

a) *Mortis causa* negozioa da ituna; kausatzailearen oinordetzaren irekitzea kontratuaren egitatezko supostuaren parte izanik –izendatuak ez dauka kausatzailearen heriotza gertatu arte behin-betiko eskubiderik honek emandakoaren gainean–, *de cuius*-ak oinordekoari transmitituta haren jaraunspenaren kontu egiten baita, nahiz eta efektu batzuk ituna sinatzen den egunera aurreratu.

b) *Ondarezko negozio juridikoa* da, gainera, oinordetza ituna; izan ere, honen helburua familiaren ustiatzearen belaunaldiz-belaunaldiko

trasmisioaren inguruan sortzen diren harreman juridikoak diseinatu eta arautzea baita, gehienek, kutsu ekonomiko argia dutelarik. *Negozio xedatzailea*, azken finean, ituna sinatu aurretik existitzen den eskubide baten aldaketa edo transmisioa martxan jartzen duen tresna delako hura, kausatzailearen ondarezko eremuan eraldaketa juridiko bat ematea bilatzen duena, kontratugileak bete-beharrezko harreman soil baten protagonista izatera murriztu gabe.

Ituna oinordetza *prozesuari dagozkion etapa ezberdinekin harremanetan jarriz* baieztatu liteke, halaber, harek kausatzailea bizirik dagoen bitartean pizten dituela testamenduak edo legeak jaraunspen fenomenoak kudeatzen dutenean *de cuius*-a hil ostean ematen diren pausuak; izan ere, *izendapena*, *bokazioa*, *delazioa* eta *onarpenari* dagozkion momentuak itunak ordezkatzeko baititu kontratugileen adostasuna dela medio. Kausatzaileak izendatuari eskaintzen dion "oinordetzeko eskubideak" *behin-behineko titulartasun* bat suposatzen du honentzat bere borondatea harenarekin lotzen duenetik, *de cuius*-a hil eta gero behin-betiko egoera bilakatuz. Baieztapen honek ez du indarrak galtzen, gainera, itunaren bidez kausatzaileak izendatuaren alde momentuan ondarezko transmisio bat gauzatzea erabakitzen badu, izan ere, haren oinordetzaren irekitzeak konfirmatu beharko baititu itunaren sinatzean aurreratutako efektuak.

3.3. Perspektiba estatikoa

"Mugimendurik gabeko" itun bat irudikatu beharko bagenu, bere sortze prozesuari begira, argazki bat balitz bezala, komenigarria litzateke, ostera, itunaren baliozkotasunari gagozkiola, bere *ezinbesteko elementuak* zeintzuk diren jakitea, *posible diren elementuekiko* argi bereiziz.

3.3.1. Itunaren ezinbesteko elementuak

a) *Subjektu parte hartzaileak*

Euskal Autonomia Erkidegoan, zoritzarrez, elkarren ondoan bizi diren Zuzenbide pribatuari dagozkion araudi ezberdinei so eginez, aipatu beharra dago kausatzaileak, bere oinordetzaren diseinuaren inguruan ari garenez, forudun *auzotartasun zibila* eduki behar duela 3/1992an aurreikusitako edozein motatako oinordetza ituna sinatu nahi badu (positiboa, negatiboa edo xedatzailea), izendatuaren auzotartasuna zein den kontutan hartu gabe. Zilegitasun ukanbeharrak izanik, beharrezkoa izango da, gainera, kontratugileek jarduteko gaitasun osoa izatea, Euskal Zuzenbide Zibilaren Legearen Aurreproiektuaren 100.3. artikulua dionari jarraiki, Estatuko beste ordenamendu zibilen araudiarekin sintonian.

Ituna, 1992ko Legearen isiltasuna bitarteko, *nuntius*-aren bidez sinatu daitekela azpimarra leike, halaber, beti ere, kausatzaileak bere ezkontide edo bikoteari baimena eskatzeko duen beharra argi izanik, itunak ondarezko transmisio bat aurreikusten duenean "biona" den ondasun batekiko (komunitatezko ezkontza eraentza ekonomikoen eremuan).

Itungileen artean ez du 1992ko Legeak *ahaidetasun harremanik* esanbidez inposatzen. Hala ere, Bizkaiko araudiari begira, nabarmena da, tronkalitateak eta seniparteak ezartzen duten zurruntasuna aintzat hartuz, oinordetza kontratu gehienek familiarreko izaera mantenduko dutela, deusezak izango baitira *mortis causa* tronkaleko senideak ez direnen alde onibarren gainean burututako xedapenak. Itunak ez badauka momentuko eskualdaketarik, ordea, kausatzailea hil arte ez da posible izango tronkalitateak eta seniparteak ezartzen dituzten mugak gainditu diren jakitea. Edozelan ere, arrunta izan da, mendetan zehar, kausatzailearen ezkontideak hura hil eta gero, haren izenean *mortis causa* xedatzeko botere bat izatea, *komisario* papera betez. Oinordetza ituna komisarioaren eskura egongo da aipatu diseinua burutzeko, noski, baina bere zentzu osoa mantenduko du oinordetza kontratuak komisarioak ezkontidearekin zeuzkan seme-alaba amankomunak izendatzeko erabiltzen badu.

b) *Edukina*

Oinordetza itunak ezinbestean bere *corpus*-ean gorde behar duen edukinari gagozkiola, itun positiboan [oinordetzeko ituna], hautatuaren alde ematen den *mortis causa* izendapena dela esan beharra dago [ala etorkizunean gauzatuko denaren promesa adostua], titulu unibertsalez edo partikularrez. Itun negatiboaren baliozkotasunari begira, ordea, Bizkaiko araudiari so eginez, kausatzailearen xedatzeko askatasun osoa helburu izanik, azpimarratu behar da tronkaleko senide guztiek uko egin beharko lioketela onibarrekiko duten eskubideari, senipartedunen artean lehentasunezko "taldea" osatzen dutenen errenuntzia nahiko izango litzatekeen bitartean. Itun xedatzaileak, negatiboarekin alderatuz hirugarren baten aldeko ondarezko xedapen bat gehitzen duen heinean, haren ukanbeharrak bete beharko dituela nabaria da, bestalde.

d) *Forma*

Oinordetza ituna arautzen duten Estatuko beste ordenamenduekin sintonian, 1992ko Legeak, ituna, *mortis causa* negozio bat den heinean, eta kausatzailearen hil osterako borondatearen adierazpenaren egiazkotasuna eta ziurtasuna bermatzea helburu izanik, Eskribau aurrean egiletsitako dokumentuan agertu dadin galdatzen du, itungileek horretarako ezkontza-hitzarmena erabili dezaketelarik (179. artikulua; nahasiagoa, 74.a).

3.3.2. Itunaren elementu posibleak

Itunaren ezinbesteko elementuekin batera ager daitezke haren *corpus*-ean nolanhiko *klausulak*, *erreserbak*, *kargak*, *ordezpenak* eta *errebetsioak* (EHFZZL 74. artikulua). Erantsitako elementu hauen azalpena plazaratzeko, ordea, negozio juridikoaren teorian esanguratsuenak izan direnak aukeratu dira: *epea*, *baldintza* eta *modua*.

a) Epea

Foruetan, egia esan, itunaren bitartez gauzatzen den *mortis causa* izendapenari ez ziztzaion, bere efikaziari begira, hasierako ez bukaerako eperik jartzen, nahiz eta, negozio juridikoaren teoriaren arabera, abstraktoki, posible izan. Izatez, epeak oinordetza itunak martxan jartzen duen belaunaldiz-belaunaldiko trasmisio katean zentzua dauka, justuki, kate hori aurreikustean, hots; 1526ko Bizkaiko Foru Berriak azaltzen zuen bezala, kausatzaileak itunaren bidez bermatzea izendatua hil eta gero [epe ez-ziurra] bere seme-alabek jasoko dutela harek zuen eskubide bera.

b) Baldintza

Itungileek askatasuna dute, halaber, adostutako ezinbesteko edukinari baldintza bat gehitzeko, hau da, itundutakoaren efikazia gertaera ezezagun baten menpe uztea. EHFZZLaren isiltasuna dela medio, Kode zibilaren araudia dugu aztergai eremu honetan, bai testamentuari eskaintzen dion atala (790 eta hurrengo artikulua), baita, erremisioz, kontratuari dagokiona ere (1.113 eta hurrengo artikulua). Oinordetza itunari gagozkiola, joko gehien ematen dutenak baldintza *esekitzailea* eta *iraungitzailea* dira. Lehenengoari bagagozkio, itun positibo baten esparruan, izendatuak kausatzailearen behin-behineko oinordekoa izatea onartzen du kontratua sinatzen denetik, baina izendapenaren efikazia aurreikusitako gertaera ez-ziur baten menpe geratzen da. Gertatu bitartean, izendatuak bere eskubidea defendatzeko akzioak izango ditu, hala ere (KZeko 1.121. artikulua), eta baldintza bete aurretik hilez gero, bere ondorengoei trasmittituko die, *mortis causa*, itunaren poderioz eskuratutako baldintzapeko eskubidea. Bizirik dirauela baldintza betetzen bada, oinordekoaren izendapena “purifikatu” egingo da, bere behin-behinekotasuna galdu gabe; eta baldintza betetzen ez bada, izendapenak ez du efikaziarik izango. Itun negatibo baten eremuan kontrakoa gertatzen da, ordea. Oinordekoaren uko egiteak aurrera joko du baldintza esekitzailea betetzen bada, eta ez bada betetzen errenuntzia inefikazia izango da [gutxienez, baldintza nahibadakoa denean], oinordekoak bere eskubideak mantenduz.

Baldintza iraungitzailearen funtzionamendua, berriz, alderantzizkoa da itun positiboari

bagagozkio, eta gainera, eman izan duen jokogatik, EHFZZLk ere aurreikusten du itungileek berau adosteko aukera, 80 eta 186. artikuluetan. Kasu honetan, oinordekoaren izendapenak efikazia du hasieratik, eta soilik galduko du baldintza betetzen bada. Bete bitartean, kausatzaileak izango ditu eskura bere posizioa defendatzeko beharrezkoak diren akzioak, izan ere, izendatua baita harek trasmittitako ondarearen jabe berria. Ez bada baldintza betetzen, oinordekoaren izendapenak aurrera jarraituko du baina kausatzailea hil arte bere behin-behinekotasuna mantenduz. Izendatua hil egiten bada baldintza bete baino lehen, esekitzailearen supostuan bezala, bere ondorengoei trasmittituko die ituna dela medio baldintzapean jasotako eskubidea (EHFZZLko 83.1. artikulua). Itun negatiboari dagokionez, halaber, kontrakoa esan beharko dugu. Baldintza betetzen bada, itundutako uko egite efikazak bere indarra galdu eta oinordekoak bere posizioa berreskuratuko du; baldintza ez bada ematen, aldiz, “purifikatu” egingo da errenuntzia eta oinordekoak bere izaera hori galduko du.

d) Modua

Elementu hau oso erabilia izan da euskal lurraldeetan sinatu diren itunetan, izan ere, kausatzaileak, oinordeko baten alde *mortis causa* izendapena eta familia ondarearen trasmisioa gauzatu izan duenean, izendatuari, baserriaren “gidari” berriari, zenbait karga eta betebeharrak ezarri baitzizkio bere ardura betzeko moduari begira. Obligazio hauen artean ezagunak dira, hala nola, Foruek aurreikusitako kausatzailea eta bere ezkontidea mantentzeko beharra, anai-arreba “baztertuei” diru kantitate bat edo eta mantenua ematearena, edo familiaren ustiapenari begira kudeatzeko orduan jarraitu beharreko argibideak.

3.4. Perspektiba dinamikoa

Filme bat balitz bezala, segidan, oinordetza ituna “mugimenduz” betea aztertzeke beta dugu, bere *efektuen* azterketa xume bat egiteko abadagunea, alegia, analisisa bi denbora tarte ezberdinetan banatuz: *ituna sinatzen denetik kausatzailea hiltzen denerarte* dirauena eta *honen heriotzetik aurrera* zabaltzen dena.

3.4.1. Itunaren efikazia kausatzailea bizirik dagoen bitartean

Itun positiboari gagozkiola, komenigarriena kausatzailearen eta izendatuaren egoera juridikoen azterketak bereiztea da, zorren gaineko erantzunkizunaren inguruko aipamena bukaerarako utziz.

a) Kausatzailearen posizio juridikoa

Oinordetza itunak, aldeberria eta baliozkoa izanik, hura sinatu aurretik kausatzaileak egindako testamentu bidezko xedapenak errebokatu egiten ditu, baldin eta harek ez badu bi xedapen moten arteko bateragarritasuna esan bidez adierazi (EHFZZLko 75 eta 183. artikulua). Errebokatzeko indar honetatik ihes egiten dute, hala ere, *hermandadeko testamentuak*, ezkontide bat hura egiletsi eta urte bete igaro baino lehen hil egiten denean (EHFZZLko 72 eta 177. artikulua), eta *mortis causa dohaintza*, oinordetza ituna kontsideratzen den heinean (EHFZZLko 76 eta 180.2. artikulua). Ondorioz, ituna egiletsi ondoren kausatzaileak egindako testamentu bidezko xedapenak soilik izango dira efikazak kontratuan horretarako ondasun kopuru bat "erreserbatu" badu. Erreserbatutako ondarea erabiltzen ez badu *de cuius*-ak, hau hildakoan *abintestato* oinordetza irekiko da, kontrako argibiderik ez badago. *Mortis causa* xedatzeko kausatzailearen askatasuna aipatu "erreserbari" lotua egonik, honek *inter vivos* eskualdatu nahiez gero oinordekoaren oneritza beharko du itunaren bidez momentuko ondare transmisioa burutu badu bere alde (EHFZZLko 77 eta 181. artikulua) eta, ez badu transmisio hori burutu, soilik gauzatu ahal izango ditu kostubidezko xedapenak (EHFZZLko 78 eta 182. artikulua).

b) Izendatuaren posizio juridikoa

Atzerago esan bezala, ituna egilesten denetik, izendatutakoa kausatzailearen *behin-behineko kontratu bidezko oinordekoa* da, titulu unibertsalez edo partikularrez, *de cuius*-aren heriotzak duen eskubideari irimotasuna egotzi arte. Hala ere, kausatzailea hil baino lehen suertatzen bada oinordekoaren heriotza, ondorengoei transmitituko die, *mortis causa*, bere behin-behineko eskubidea eta, kasuz-kasu, kausatzailearen eskutik jasotako ondarea. Kausatzailea bizirik dagoen bitartean, halaber, oinordekoak bere eskubidearen defentsarako beharrezkoak diren akzioak izango ditu eskura.

d) Zorren gaineko erantzunkizuna

Laburbilduz, *itunak momentuko ondare transmisioa ekarri badu, kontratua sinatu baino lehenago* kausatzaileak egindako zorren aurrean, lehenbizi berak erantzungo du oinordekoari eman ez dizkion ondasunekin, eta, ez badauka zerekin ordaindu, oinordekoak erantzun beharko du kausatzaileak itunaren bidez eman dionarekin, hartzekodunen aurrean duen eskusio eskubidea kontutan hartuta. Zorpetua oinordekoa bada, ordea, bere ondasun guztiarekin erantzungo du, kausatzaileak transmititu dizkionekin ere, noski. Zorrek *ituna sinatu ondoren* egindakoak badira, berriz, kausatzailea bada zorduna bere

ondare guztiarekin erantzungo du, oinordekoari transmititu diona kenduta. Izendatua bada zorduna, ostera, bere ondasun guztiarekin erantzungo du hartzekodunen aurrean, itunaren bidez jasotakoa barne.

Itunak *post mortem* efikazia badu, ordea, kausatzailea denez ondarearen jabe bakarra (EHFZZLko 78. artikulua), berak hartutako zorren gainean, ituna sinatu aurrekoak zein ondorengoak izanik, bere ondare guztiarekin erantzungo du. Oinordekoa bada zorduna, berriz, honek bere ondare pribatuarekin erantzun beharko du, itunaren bidez ez baitu ezer ere jasotzen kasu honetan. Kausatzailea hil ondoren, oinordekoaren kalitatea behin-betikoa bilakatzen denez, honek erantzungo du *de cuius*-aren zor guztien aurrean, *inventario onuraz* baliatuz bere erantzunkizuna itunaren bitartez jaso dituen ondasunetara mugatu ahal izango badu ere.

3.4.2. Itunaren efikazia kausatzailea hil ondoren

Lehenago esan bezala, kausatzailearen heriotzarekin bere oinordetzaren irekitzea dator eta, honekin batera, kontratu bidezko oinordekoaren posizioa kontsolidatzen da, behin-betikoa bihurtuz. Ez du, ba, honek, kausatzailearen jaraunspena onartu behar izango eta ezingo izango du berau zapuztu ere. Inventario onuraz baliatu daiteke oinordekoa bere erantzunkizuna mugatzeko eta ez du, noski, kolazionatu beharko jaraunspenaren banaketan itunaren bidez jasotakoa (KZeko 1.035. artikulua; EHFZZLko 62.3 eta 65. artikulua).

3. 5. Itunaren eratorritako inefikazia

Aurreko atalean marraztutako ibilbideak baliozko itun bat baldin badu abiapuntu, kausatzailearen heriotzarekin bere prozesuari bukaera ipintzen dion ituna, alegia, 1992ko Legeak kontratua *de cuius*-a bizirik dagoen bitartean inefikazatzea aurreikusten du, bere aurrekari historikoen eta Estatuko beste ordenamendu zibilen sintonian. Azter ditzagun eratorritako inefikazia horren arrazoiak:

1. Itunaren adostutako aldaketa edo iraungitzea. KZeko 1.255 eta 1.256. artikuluek diotenaren itzalpean, euskal Lege autonomikoak kontratugileek, edo haien ondorengoei, adostutako itunaren aldaketa edo eta iraungitzea erabateko baliozkotasuna ematen die, beti ere eskritura publikoan gordetzen badute (EHFZZLko 75.2 eta 184. artikulua).

2. Itunaren ex lege desegitea. Bi bide arautzen ditu 1992ko Legeak:

a) *Errebokazioa*. Euskal Legeak 79 eta 185. artikuluetan zerrendatzen ditu kausatzaileari itunaren *corpus*-ean adostutako *mortis causa* izendapena bere kabuz errebokatzeko zilegitasuna ematen dioten arrazoiak: 1. *Kontratugileek itundutako kausak direla medio*. 2. *Izendatuari ezarritako kargak eta baldintzak era larrian bete gabe uzten badira*. 3. *Izendatutakoa ezduintasun edo desjaraunspen kausan sartzen bada*. 4. *Izendatutakoaren jokabideak familiako elkarbizitza normala eragozten badu*. 5. *Izendatutakoaren ezkontza banandu, deuseztu edo dibortzioatuz gero, oinordetza ituna ezkontza hori dela eta eman bada*. Kausa hauetariko bat betetzen bada, kausatzaileak dagokion akzio judiziala tarteratzeko aukera izango du (bera ez badago, bere jaraunselek, *de cuius*-ak nahi ez bazuen izan ezik), oinordekoaren aldeko izendapena desegin eta honi transmititutako ondasunak berreskuratzearen, alegia.

b) *Iraungitzea*. Kontratugileek adostu dezaketenez bezala, euskal Legeak ituna *ope legis* iraungitzeko arrazoi batzuk ere eskaintzen ditu bere 80 eta 186. artikuluetan: 1. *Izendapena atxikia dagoen baldintza indargabetzailea betetzen bada*. 2. *Izendatua ondorengorik utzi gabe hiltzen bada edota, ondorengoak utzita ere, kausatzaileak ordezkapen eskubidea ukatu bazien*. Ituna iraungita, oinordekoa zenari transmititutako ondasunak ere kausatzailearen edo honek izendatutako hirugarren baten eskuetara bueltatuko dira, kontrako akordiorik ez bada.

Edozelan ere, izendapena errebokatu edo iraungi egitean, itunak momentuko ondare transmisioa ekarri badu oinordekoaren alde, honek gozatutako *edukitzea egoeraren likidazioa* burutu beharko dute kontratugileek. Lege autonomikoak 81 eta 187. artikuluetan eskaintzen duen erizpide bakana itungileen akordio falta dagoen supostuetara mugatuz, eta ordezkara araudi gisa Kode zibilarrena aplikatuz, ondoriozta liteke ondarearen errebortsioa ez dela izendatuak jasotako fruitu eta probetxuetara zabalduko, ondarea kudeatzeko harek izan dituen gastu arruntak bere kontu dihoazenez bezala. Hobekuntzak kobratzeko aukera du izendatuak 1992ko Legearen arabera, errentzio eskubideak babestua (KZeko 453. artikulua).

3.6. Itungileen elkarbizitza

Anciane Regime delakoaren itzalpean kokatzen da euskal Foruek marrazten duten eskema sozio-ekonomiko-juridikoa, 1992ko Legeak fideltasun larregiz jaraunstua, zeinaren muinean auto-horniduran oinarritzen den familia konposatuaren baserria eta ustiapena aurki daiteke, kontsumo eta produkzio unitate mankomunatu bat den heinean. Familiaren aurrera-bizitzak

ondarearen zatiezintasunean du itzaropena, belaunaldiz-belaunaldi, oinordeko bakarraren sistema abiapuntu hartuta, oinordetza itunen bidezko izendapen eta transmisioen bidez lortzen dena, alegia. Izendatuaren ezkontza une egokitzat hartuta, ituna sinatzeak *bikote gaztearen* (izendatuak) eta *bikote zaharraren* (izendatzaileak) arteko elkarbizitza hastera daramatza kontratugileak, familiaren baserriaren zapaipen nortasun juridikorik ez duen komunitate edo elkarte moduko bat sortzera, hain zuzen. Ustiapenak eskaintzen dituen *baliabideen* eta familia osatzen duten kideen *beharren* arteko oreka mantentzeko tresna aproposa bilakatzen da, beraz, komunitatea, etxean geratzeko aukeratuak izan ez diren beste seme-alabentzat haien bizitzak aurrera ateratzeko errekurtsioak sortuz. Baserriaren gidaritza bateratua burutzen dute bi bikoteek gehienetan, zaharren eskuetatik gazteenetara buruzagitza progresiboki igaroz. Familiako kide guztiek lan egiten dute, bakoitzak bere indarren arabera: baserriaren ekoizpenak talde gisa kontsumitzen dituzte eta gastuak ere amankomunean ordaindu.

Elkarbizitza desegiteko arrazoiak ere egoten dira: a) *Familia osatzen duten kideen arteko ikusiezinak*; b) *Izendatzaileen heriotza*, eta d) *Izendatuaren heriotza ondorengorik utzi gabe*, arrazoiok, halaber, oinordetza itunaren iraungitzearekin bat egiten ez duten arren. Komunitatea hautsi egiten bada, ituna iraungi gabe, irabaziak erdi bana zatitzen dira bikote bakoitzeko; eta hortik aurrera, bikote zaharraren mantenua gazteen esku geratzen da (hauek baitira ondarearen jabe formalak, gehienetan, ituna dela medio burutu den transmisioa dela eta) edo bikote zaharrak baserriaren gozamenaren erdia erreserbatzen du bere mantenuaren berme gisa.

Ikus daitekenez, zirrikitu gutxi zabalik uzten dituen sistema irudikatzen zuten gure Ertaroko Foruek, auto-horniduran oinarritutako ekonomi egitura baten itzalpean. Aldaketak etorri ere, etorri ziren, hala ere. Ordurarte Eliza Katolikoak “zuzentzen” zituen sinesmen eta praktiketako eraldaketa bortitza sufritzen dute Erreforma de Kontraerreformarekin, Estatuak hartzen du eta ikuskatzaile funtzio hori Errenazimendu eta Ilustrazio mugimenduen eraginez: hiritar burgesiaren hedatzea, lan-indarraren proletarizazioa, gizartearen ehunetan barrena klase ertainen hazkunde ikaragarria dira, dudarik gabe, industrializazioaren ezaugarri nabarmenenak. Landatik hirietara ematen diren migrazio mugimenduak, natalitatearen kontrola eta beherakada, emakumeak goi mailako ikasketak burutu eta lan munduan sartzea, ezkontidea aukeratzeko askatasuna eta, laburbilduz, gizarte harreman eta hartueman pertsonalen sekularizazio argia. Ordurarteko familiaren argazkia irauli egiten da: familia zabalak bidea irekitzen dio familia nuklearra deritzonari, belaunaldi nagusiak agintaritza

galtzen du gazteen ezkontza, lana eta bizitokia aukeratzeko orduan, merkatuaren indarrak, gehiegizko kontsumoak eta dibortzio askeak protagonismoa eskuratzen duten bitartean. 1992ko Lege autonomikoak ertaroko Foruek diseinatutako eskema "tronkaletik" edaten badu ere, bada garaia, beldurrik gabe, eta errespetu osoz, gure oinordetza sistema gaurkotu eta egun indarrean dugun gizartearen eskaerei moldatzeko. Oinordetza itunaren gaurkotzearen inguruan zenbait pintzelada ematea da, ba, idazki honen azken atalaren helmuga.

3. 7. Oinordetza itunaren etorkizunari begira

Nekazal Zuzenbidearen kontzeptio klasikotik nekazal-elikagaien Zuzenbidearen ikusmira "modernoago" baterantz zabaltzen den bidean, eta *familiaren enpresaren* trasmisio zatiezinen eremuan, doktrinaren zati haundi batek KZak 1.271. artikuluan oinordetza itunaren gainean mantentzen duen debekua ezabatzearen alde apostu egiten du. Ituna, familiaren ondarea oinarri duten makina bat lantegi eta enpresen belau-naldiz-belau-naldiko trasmisio tresna bat izateaz gain, *familia protokoloarekin* batera, lantegi hoi kudeaketa gauzatzeko sor daitezken pertsona juridikoen araudiak osatzeko euskarri negoziara ere bada. Arazoa, hala ere, ituna egiletsi ondoren kontratugileek sortzen duten pertsona juridikoen aldeko ondarezko aportazioan aurki liteke. Nabaria da, tronkalitatearen ikuspuntutik, ondare pribatibo bat soziedade baten alde eskualdatzeak printzipio tronkalaren mugak gaindi litzazkeela, 1992ko Legearen arabera, oinordeko bakarraren sistema bazkide bat baino gehiagoko soziedadeen muinean difuminatuz doan heinean.

Azken finean, doktrinaren baitan sortzen ari den korrante berri batek gure araudiaren arabera oinordetza itunak eman ditzaken fruitu berberak Kode zibilaren eremupean lor ditzaketen negozio formulak aurkitzeko egiten dituen saiakera, 1.271. artikulua ezartzen duen debekua itzuriz, XIX. mendeko espainiar testu zibila aspektu honetan zaharkitua geratu delaren sintoma argia da. Oinordetza ituna "moralik gabeko" negozioa dela defendatu izan duen argudioak indarra nabarmenki galdu du, izatez, azken hamarkadetan, familien ustiategi eta lantokien beharrezko *mortis causa* trasmisio zatiezin eta dinamikoa ahalbidetzen duen heinean.

Zer esanik ez, halaber, euskal Foruek irudikatzen duten *elkarbizitza komunitatearen* erreplika moderno gisa kontsidera litezken egoera berriei buruz; hots, Katalunyan onartu diren lege batzuk, 19/1998, abenduaren 28koa, *Elkar laguntzarako bizikidetzaren* egoerak arautzen dituenak, eta

22/2000, abenduaren 29koa, *Adineko pertsonen abegiaren* ingurukoa, eta Kode zibileko 1.791-1.797 artikuluetan aurreikusten den *mantenu kontratu* berria. Oinordetza eremutik urruntzen diren arren, gure gizartean mendetan zehar zutik iraun duten elkarbizitza formulak berreskuratzen dituzten euskarri juridikoak dira hauek, adineko pertsonen isolamendua ekiditu nahian, ondare trasmisio bat mantenu eta atentzio egokien truke ematea proposatzen dutenak, alegia. Gure instituzio, printzipio eta euskarri zaharren gaurkotzea konplexu gabe burutzeko beharrezko bide horretan ez al dira ba, emandakoak, abiapuntu esanguratsuak?